

Diru-laguntza



Babeslea



Lankidetzatza



Agencia de Protección de Datos
de la Comunidad de Madrid



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



CLI - PROMETEO Proiektua

*Informazioaren eta
Komunikazioaren Teknologiak
Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoa*

12 - 14 urte

Galdetegiak egin dira Hezkuntza Ministerioak eta Andaluzia, Katalunia, Euskadi, Extremadura eta Madrileko erkidegoetan, dagozkien sailek lagunduta.

CLlren Zuzendaritza-taldea:

Elkartearen Zuzendaritza.

CLI-PROMETEO proiektuaren Zuzendaritza-taldea:

Antoni Farriols, José Manuel Ferrer, José Carlos Vaquero.

Lege-aholkularitza:

Carlos Valero, Jordi Bacaria, Lola Albo, Ernesto Quílez.

Talde informatikoa:

José Manuel Ferrer, Carlos Ramón Ferrer.

Binetak diseinatzeko laguntzaile berezia:

M^a del Carmen Labarquilla.

Bestelako laguntza teknikoa:

Javier García Álvarez.

Proiektuaren Datuak Babesteko Eskuliburuak:

9-11 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Salustiano Asencio.

12-14 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Alberto Leal.

15-17 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Débora Caballero.

Maketazioa:

Web y Media Diseñadores s.l.

Eskuliburuaren zuzendaritza:

Comisión de Libertades e Informática.

Inprimaketa:

Centro Especial de Empleo Ponce de León.

Lege-gordailua: M-53404-2008

Erregistro zenbakia M-000781/2009

Copyright © 2008

Eskubide guztiak gordeta daude. Baimena ematen dugu eskuliburua kopiatzeko eta edozein bitarteko bidez hedatzeko, baldin eta egileak aipatzen badira eta ez bada merkataritza erabilerarik egiten eta testuan aldaketarik egiten.

Comisión de Libertades e Informática (CLI) erakundeak Datu Pertsonalen Babesaren Oinarrizko Eskubidearen alde dihardu, pertsonak, enpresak eta erakundeak jabe daitezen zein garrantzitsua den eskubide hori.

Hala nahi duten pertsonak ez ezik, CLlren partaide dira honako erakunde hauek ere:

AI: Asociación de Internautas.

ALI: Asociación de Ingenieros e Ingenieros Técnicos en Informática.

APDHE: Asociación Pro Derechos Humanos de España.

FADSP: Federación de Asociaciones de Defensa de la Sanidad Pública.

UGT: Unión General de Trabajadores.

CLI PROMETEO Proiektua 2008/09

CLIk garatzen du CLI-PROMETEO proiektua, haur eta gazteei zuzendua, eskolatik bertatik sustatzeko informazio-teknologiaren erabilera, eta, aldi berean, datu pertsonalen babesaren inguruan kontzientziatzeko ere.

Aurkibidea

Kapitulua	Edukia	Helburuak	Jarduerak	Orr.
Sarrera.	Eskuliburuaren aurkezpena.	Motibazioa.		2
1. Interneten erabilera egokia ordenagailuan eta sakelako telefonoan.	Egin daitezkeen jarduerak eta ekartzen diguten onura.	Bi teknologiek dauzkaten aukerak eta abantailak zein aztertzea.	Interneten oraina eta etorkizuna: hausnarketa eta eztabaida.	4
2. Internet gaizki erabiltzeak sor ditzakeen arazoak:	Datu pertsonalen babes eta pribatutasuna.	Prozedura teknikoak ezagutzea, gure intimitatearen mesedetan.		6
• Fitxategiak partekatzea: testua, argazkiak, bideoak.	Birusak, birus-kontrakoak, blokeatzaileak, suebakiak. Nahi ez den posta ekiditea ("spam").	Gure pribatutasunak jasan ditzakeen erasoak antzematea eta horiek ekiditeko baliabideak.	Fitxategiak aldatzea: irudi errealean aldakuntza.	6
• Ezezagunekin geratzea: "on line" eta aurrez aurre ("itsu-itsuko hitzordua").	Beste batzuekin geratzea sarearen bidez: txatak.	Ezezagunekin harremanetan jartzeak dakartzan arriskuak identifikatzea.	Nortasun bikoitzeko irudien azterketa: errealitateak iruzur egiten du.	11
• Jazarpen elektronikoa ("cyberbullying").	Jazarpena egiteko bideak: – posta elektronikoa – txatean eta "on line" jokoetan parte hartzea.	Jazarpen kasuak antzematea eta horiek kontra jokatzeko jakitea.	Ziberipuina: Edurne Zuriren ispilua.	13
• Iruzurrak Interneten bidez: – erosketak – nortasuna ordeztzea "phising".	Nortasun elektronikoa.	Nortasuna babesteko hartu behar diren neurriez jabetzea.	Phising: definizioa, argazkien deskribapena. Benetako kasu baten azterketa.	15
3. Posta Elektronikoa.	Konfigurazioa eta neurriak.	Posta elektronikoaren kontua berme osoz konfiguratzeko ikastea.	Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea	19
4. Gure eskubideak: – herritarrak gara (datu pertsonalen babesa), – pertsonak gara.	Babesten gaituzten eskubideak: atzitzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko edo datuen aurka egiteko eskubidea. Salaketa-ereduak.	Era aktiboan ezagutzea datuen babesari buruzko eskubideak.	Datuak Babesteko Bulegoan jarritako salaketa baten kasu praktikoa.	22
5. Familientzako aholkuak.				30
6. Ikasleentzako aholkuak.				32

Sarrera

Informazio eta komunikazio berriak dira egunez egun gehien bilakatzen ari direnak, bereziki Interneten bidez. Ezagutzeko eta besteekin harremanetan jartzeko modu berrietara hurbiltzen gaituzte. Egun, nahi dugun ia informazio guztia eskura dezakegu eta mundu zabaleko milioika lagunekin elkar gaitetzke denbora eta distantzia mugarik gabe.

Baina aurrerapen horiek ez baditugu egoki erabiltzen, arriskuak ere sor daitezke. Horregatik, bada, Comisión de Libertades e Informática elkarteak ikerketa bat egin du. Parte hartu dute hainbat autonomia erkidegotako eskola eta institutueta zortzi mila baino lagun gehiagok; helburua zen jakitea zein diren zuen lehentasunak teknologiak erabiltzean, hau da, ordenagailua eta sakelako telefonoak eta horiek Internetera duten sarbidea, irudi eta soinu erreproduzitzailak... bai eta beste zenbait alderdi interesgarri ere. Honatx lehendabiziko datua: zure adineko ikasleen ia %30 konektatzen da egunero Internetera, eta %20 asteburuetan soilik. Gainerako guztiak noizean behin konektatzen dira.

Eskuliburu hau da aipatutako azterketa horren ondorioen emaitza. Horietako garrantzitsuenetako bat da sarritan ez dakizuela zein arrisku ekar dezakeen Internet gaizki erabiltzeak. Horregatik, bada, bestelako aukerak eskainiko dizkizugu arrisku horien aurrean babesteko, eta bereziki zure datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten alderdiak: zure izena, helbidea, argazkia, ahots-grabazioa... Besteen aurrean identifikatzen zaituen guztiaz eta Interneten inolako kontrolik gabe ibil daitekeen guztiaz hitz egingo dizugu. Horrez gain, zure intimitatea errespetatzeko, babesten zaituzten eskubideen berri emango dizugu,

eta adieraziko dizugu, behar izatekotan, nola defenditu behar dituzun. Jakin ezazu Legearen arabera 14 urtetik gora **adinez nagusia** zarela beste batzuei baimena emateko zure datuak erabili edo tratatu ditzaten.

Erraz eta era praktikoan, hiru atal handitan dago egituratuta eskuliburu honen edukia:

1. Interneten erabilera: dakarren onura eta gaizki erabiltzeak sor ditzakeen arazoak (birusak eta bestelako sarteak, iruzurrak...).

2. Herriar gisa dagozkigun eskubideak, eta, bereziki, datu pertsonalen babesari buruzkoak.

3. Guraso, hezitzaile eta ikasleentzako aholkuak.

Eskuliburu hau sortu dugu irakur dezazun eta proposatzen zaizkizun jarduerak egin ditzazun guraso, tutore eta irakasleekin. Asko ikasiko duzue elkarrekin, eta ondo ulertzen ez duzun guztia azalduko dizugu. Aholku batzuk ere emango ditugu, ahatz ez ditzazun.

Ezagutza beteko abentura bene-benetakoa, teknologia-erronka berriei aurre egiten lagunduko dizuna.

Zatoz gurekin! Dibertigarria izango da!

1. kapitulua

INTERNETEN ERABILERA EGOKIA ORDENAGAILUAN

Internet erabiltzea mesedegarria da denontzat. Sarean nabigatuz gero, bai ordenagailuarekin edo bai sakelako telefonoaren bidez, gauza asko ikas dezakegu, eta jende askorekin jar gaitezke harremanetan. Eta hori guztia denbora errealean!

HAU GUZTIA EGIN DEZAKEZU:

- Lagunekin txateatu, une jakin batean eta, aldi berean, denok konektatuta. Beren izenak ikusi zure ordenagailuko zerrendan eta mezuak trukatu. Eta, askotan, ahotsa eta irudia ere sar ditzakezu komunikazioan.
- Zure interesekoak diren gaiei buruzko informazioa bilatu eta zeure kasa ikasi. Internetek mundu osoko datu-baserik handiena du euskarri informatikoan, **World Wide Web** (www) izenekoa; milioika orrik osatzen dute, eta era guztietako informazioa biltzen dute, milaka zerbitzaritan (sarera etengabe konektatuta dauden ordenagailuak) banatuta. Hori da hori independentzia!
- Eskolan edo institutuan eskatzen dizkizuten lanak egin edo osatu. Imajina ezazu bisita birtualak egin nahi dituzula munduko hiri eta toki garrantzitsuenetara, eta, zenbaitetan, hiru dimentsiotan. Eta hori guztia pantaila baten aurrean eta zuk zeuk zuzenduta. Irakasle eta lagunak harrituta geratuko dira!
- Urruti bizi diren lagun eta senitartekoekin komunikatu, denboraren eta distantziaren mugak gaindituta. Bi mila kilometrotik gora, klik eginda saguan edo pantailan.
- Zeure web orria edo bloga eduki. Bururatzen zaizun guztiarekin etengabe eguneratu dezakezun egunerokoa. Blogak eta foroak aukera eskaintzen dizute gustukoaren dituzun gaiei buruzko iritzia emateko.
- Gustuko gauzak eta norberaren interesekoak beste batzuekin partekatzea. Internet, informazio-iturri gisa erabiliz gero, tresna ezin hobea izan daiteke talde-lanerako eta gizarte-jarrerak lantzeko, ideiak trukatzeko, lankidetzarako eta nortasuna garatzeko ere bai.



- Ondo pasatu: jolastu, musika entzun edo bideoak ikusi. Joko askok zure trebetasunak (azkartasuna, adimenaren bizkortasuna...) hobetzen dituzte eta zure buru-azkartasuna jarriko dute proban.

Aipatu dizugun haur eta gazteei egindako galdetegian hainbat teknologia eskaini genizkien aukeran 12-14 urte bitartekoei. Erabilerari buruzko emaitza honakoa izan zen:

Erdiek (%50) nahiago dute Interneterako sarbidea duen ordenagailua, %26k sakelako telefonoa, %12k audio-erreproduzitzailerak (MP3, MP4...) edo argazki- eta bideo-erreproduzitzailerak, eta %9k ordenagailua, nahiz eta Interneten sartzeko aukerarik gabe izan.

ZURE HAUSNARKETA

Pentsa ezazu gizakiak azken hogeiei edo hogeita hamar urteetan asmatu dituen tresnen edo aurrerapenen artean zeintzuk irauli duten mundua, eta idatz itzazu. Non kokatuko zenuke Internet? Jaso itzazu gurasoen eta ikaskideen iritzia, eta idatz ezazu zein diren haien eta zure iritzien arteko berdintasunak eta desberdintasunak.

1.
2.
3.
4.
5.

Bat datoz:

.....
.....

Desberdinak dira:

.....
.....

Saia zaitetz Internetek eta beste teknologia batzuek izango duten etorkizuna asmatzen. Zer gehiago egiten utziko digute?

.....

2. kapitulua

INTERNET GAIZKI ERABILTZEAK SOR DITZAKEEN ARAZOAK

Ziurrenik, honakoa galdetuko zenion zeure buruari: Nork kontrolatzen du Interneten aurki dezakegun guztia?

Sarritan, inork ere ez, ikaragarri handia baita eskura dagoen informazioa; baina badira erakundeak arduratzen direnak herritarrek babesten izan litezkeen delituetatik. Gainera, kontuan hartu Internetek, maiz, errealitatearen zati baten irudia eskain dezakeela, izan ere bada gezurretako informazioa edo zaharkituta dagoena.

Hortxe datza benetako arazoa.

Internet lehegailu arriskutsua bihur liteke... eta eztanda egin! Ez baduzu neurri egokirik hartzen. Horretarako, baliabide honen mugak zein diren jakin behar duzu; ondorengo ataletan azalduko dizkizugu.



ARAZOA 1. FITXATEGIAK PARTEKATZEA: TESTUAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK...


Zure ordenagailuak dena apuntatzen du. Bisitatu dituzun web orriak gordetzen ditu, zure pasahitzak ere bai... Ez du ezer ere ahazten baldin eta zuk esaten ez badiozu. Eta, are okerrago, baliteke informatikan aditua den norbait egotea informazio horretara sartzeko, espiaitzeko eta informazio horren jabe egiteko.

Idazkari ona denez, dena dauka sailkatuta era honetan:

- **Historia.** Hemen biltzen dira bisitatu dituzun web orriak. Sarean utzi dituzun arrastoetako batzuk dira; beraz, komeni da ezabatzea inork ez dezan horren jarraipena egin.
- **Cookieak.** Ikusi berri duzun orriaren helbidea duten fitxategiak dira. Batzuk aldi baterakoak dira, baina beste batzuek urte luzez iraun dezakete ordenagailuan. Espioiek bisitatu dituzun orrialdeen jarraipena egin dezakete, bai eta zure fitxategietan sartu ere. Horrela jakingo dute zer gustatzen zaizun eta izan litezkeen bezeroen zerrendak osatzen dituzte, ondoren merkataritza-enpresei saltzeko. Garrantzitsua da noizean behin horiek ere ezabatzea.

- **Fitxategiak.** Interneten kontsultatu dituzun orrialdeen irudiak eta edukiak biltzen dituzte, berriz ere horietan sartzen zarenean zama azkartzeko. Fitxategi horietan sartuz gero, idatzitako hainbat datu jakin daitezke. Ezabatuz gero, zertxobait luzatuko da orria azaltzeko denbora, baina espioietatik eta informatika-birusetatik salbu egongo zara.

Ekidin nahi baduzu norbait zure ordenagailuan sartzeko bidea edukitzea, gomendatzen dizugu gurasoekin batera sarritan ezabatzeko fitxategi horiek. Erabiltzen duzun sistema eragilea Windows XP baldin bada, eta, horrekin batera, Internet Explorerren aurreko bertsioa, erraz egin dezakezu eragiketa hori "Historia" tik (Tresnak>Interneteko aukerak, klik egin erlaitz orokorrean eta ezabatu itzazu historia, cookieak edo fitxategiak, eta onartu).



Bestalde, ezagutzen ez dituzun askok bidaltzen dizkizuten fitxategiek **BIRUSAK** eduki ditzakete.

Bazenekien ordenagailuko birus-kontrako programek nekez antzeman ditzaketela birus batzuk eta zure ekipoa edo gorde duzun guztia (musika, argazkiak, jokoak eta zereginak) kaltetu dezaketela? Honakoak dira birusik ohikoenak.

- **Troiako zaldia edo Troiarra:** ustez kaltegarria ez den jaitsitako programetako baten atzean dago ezkutatuta. Behin jaitsi ondoren, ordenagailuan sartzen da eta nahi duen guztia egin dezake.
- **Stealth:** kaltegarrienetako bat da; birus-kontrakoari berari ere ziria sartzen saiatzen da, datuak aldatuta, eta, horrela, ezin da antzeman.
- **Bizkarroia:** programa horietan ezkutatuta joan ohi da eta "exekutatu" mezua eraman ohi du.
- **Harra:** erraz zabaltzen da, izan ere ordenagailuz ordenagailu joaten da posta elektronikoaren edo berehalako mezularitzaren bidez.
- **Cabir:** sakelakoaren birusa. Sakelakoz sakelako joan ohi da, bluetootharen bidez. Testu-mezuak edo harremanak lapur ditzake, nondik nora zabiltzan jakin edo zure elkarrizketak entzun ere bai.

Ez kezkatu. Hemen dituzu hainbat aholku praktiko birusen erasoetatik babesteko:

1. Jakina, honakoak eduki beharko dituzu instalatuta ordenagailuan:
 - **Birus-kontrakoa:** ordenagailua etxe baten antzekoa da; itxita egon behar du ez baduzu inor sartzerik nahi. Batzuetan, zelatatze sistemak ere instalatu ohi dira. Gauza bera egiten al dugu ordenagailuarekin? Ez badugu nahi Interneteko ateetatik kanpotarrak sar daitezen, zelatatze programa bat behar dugu, birus-kontrakoa. Gure segurtasun-sistema da, bizkartzaina, beti erne eta adi dagoena ez, daitezen sar programa kaltegarriak, ordenagailuan dauden datu eta fitxategiak erabiliko dituztenak. Ez ezazu ahatz sarri eguneratu behar dela; ez baduzu hori egiten ez da batere erabilgarria izango.
 - **Suebakia:** edo firewall, ingelesez. Programa horiek zure ordenagailuko “atezaina” dira: inor ez da sartuko haren baimenik gabe. Kalte egin diezazuketen programen berri emango dizu, eta, horrez gain, sartu nahi duten iruzurgileetatik babestuko zaitu.
2. Ez iezaiozu inori eman sartzeko pasahitza.
3. Ez ireki edo gorde ezezagunek bidalitako fitxategiak.
4. “pop ups”en kontrako programak instalatu, blokeatzeko zuk eskatu gabe pantailan publizitate astun eta gogaikarria eskaintzeko irekitzen diren leihoak.

NAHI EZ DEN POSTA ELEKTRONIKOA

Entzungo zenuen zerbait nahi ez diren posta mezuei buruz. “SPAM” edo ZABOR POSTA izenez ere ezagutzen ditugu.

Merkataritza-helburua dute, eta publizitate engainagarria duten mezuak izan ohi dira. Gure jakin-minaz baliatzen dira, eta badirudi gure bizitza konpondu nahi dutela. Baina, gehienetan, birusen bat sartu eta gure ordenagailua kontrolatu nahi izaten dute.

Halakoak izaten dira:

- “Irabaz itzazu milioiak ahalik eta ahalegin txikiena eginda”.
- “Zain duzu zure bizitzako maitea”.
- “Milioika lagun artean aukeratu zaitugu ..(X).. proba dezazun”.

Ilusio berri bat zure bizitzan. Bidai itzatzu zure datuak (zenbaki bat edo posta helbide bat) ...ra eta doan jasoko duzu...”.



Hona hemen hainbat aholku zure postontzian sar ez daitezen:

1. **Ezabatu itzazu, ireki gabe, nahi ez dituzun posta elektronikoko mezuak.** Batzuetan, irekitze hutsarekin jasotzen dute informazioa mezu horien sortzaileek.
2. **Ez erantzun nahi ez dituzun posta elektronikoko mezuei** ez bazaude erabat ziur nondik etorri diren.
3. **Fitxategi erantsiak ireki aurretik edo esteketan klik egin aurretik, bi aldiz pentsatu,** nahiz eta bidaltzailea ezaguna izan. Eta ez badakizu nork bidali dizun, ezabatu ezazu mezua. Ezinbestekoa balitz, gorde ezazu aurretik disko gogorrean, eta, ireki aurretik, erabili birus-kontrakoa.
4. **Ez bidali katean posta elektronikoko mezuak.** batetik ez duzu jakingo nork ikus dezakeen zure posta helbidea, eta, bestetik, birus bat edo mezu faltsu bat zabal dezakezu. Jakin beharko zenuke askotan erabiltzen direla horrelakoak, on itxurako arrazoi bat erabilita, datuak biltzeko. Galduta dabilen neska bat aurkitzeko, ebakuntza larri bat egin behar dioten haur batentzako dirua biltzea... Eta beti eskatzen dizute ahalik eta jende gehienari bidaltzeko!
5. **Ez eman txat-geletan edo posta elektronikoko mezu bidez datu pertsonalik.** Iruzurren bat izan liteke atzean. Konfiantzako tokien behin ere ez dituzte eskatzen datuak horrela. Konfiantza duzun enpresaren batek halako eskaeraren bat egiten badizu, egiazta ezazu benetakoa dela erantzun aurretik. Telefonoa ere bide egokia da egiaztatzeko.




JARDUERA. IRUDIAK ALDATZEA

Badira beren identitatea ezkutatu eta, gezurretako izena eta datuak erabilia, besteei buruzko informazioa jakiten saiatzen direnak. Gerta dakizuke norbaitek eskatzea zure hainbat datu: izen-abizenak, NAREN zenbakia, posta elektronikoa, helbidea, zaletasunak edo pasahitzak, edo, baita **argazkia** ere.

Ezagutzen ez dituzun Interneteko tokietara **argazkiak bidaltzen badituzu, zureak, zure familiakoenak edo lagunenak**, litekeena da argazki horiek erabiltzea zuk imajinatzen ez dituzun gauzetarako.

Horregatik, bada, ez bidali edo partekatu argazkiak halakoekin. Argazkia betiko da. Hausnar ezazu horren inguruan.




Mi foto

Sakelako telefonoen Bluetootha oso modu erraz eta azkarra da partekatzeko argazkiak, programak eta fitxategiak. Horrek areagotu egiten du birusak sartzeko edo spamak jasotzeko arriskua. Kontuz ibili.

Bazenekien ordenagailuko programa baten bidez aldatu egin daitezkeela irudiak eta argazkiak, eta jar zitzaketela beste batzuen ondoan, beste toki batzuetan, zure arropa eta ilea ere alda ditzaketela?

Har itzazu irudi hauek praktikatzeko, eta alda ezazu pertsona hauen irudia, ilea, aurpegiera, altuera, janzkera... aldatuta

Hori guztia egin daiteke zure ordenagailuko programa baten bidez, irudiak tratatzeko balio baitu.



GOGORATU

ARRISKUTSUA DA ZURE DATU PERTSONALAK EZEZAGUNEI EMATEA INTERNETEN ZAUDELA.

ARAZOA 2. EZEZAGUNEKIN GERATZEA: “ON LINE” ETA AURREZ AURRE (“ITSU-ITSUKO HITZORDUA”)

Azter ezazu zenbat ordu pasatzen dugun pantailaren argitasunaren aurrean. Pantailak etxean, lanean, kalean, tabernetan, banketxeetan, metroan, autoan, agenda elektronikoen sakelako pantailak, kalkulagailuak, sakelako telefonoetakoak... Pantailak liluratu egiten gaituzte eta gero eta toki handiagoa ari dira hartzen gure bizitzan.

Egun, adin guztietako milioika gizon eta emakumek erabiltzen dituzte sareak ematen dizkien aukerak harremanetan jartzeko fisikoki ezagutzen ez duten jendearekin. Horietako askok eta askok jostatzeko egiten dute, beste batzuk lagun bila ari dira, eta badira maitasun-harremana bilatzen ari direnak ere. Bada, bestalde, nahiago duena pantailaren eta teklatuaren bidez jarri harremanetan, aurrez aurre baino. Keinuen, begiraden... ordez, klikatu egiten dute saguan. Internetek, posta elektronikoen, txataren edo web orrien bidez, bidea ematen die harreman horiei.

Guk egindako azterketan adierazi duzue, **txataren** bidezko harremana duzue gustuko %70ek, eta konektatuta zaudeten denboraren ia-ia denboraren erdia hartzen du. Zuetako askok jakingo duzue, txata bilera-gela handi bat da, eta sartzen denak jende mordoa aurkitzen du, era birtualean, testuak, ahotsa, bideoak edo programak partekatze. Batzuetan gela hori baliatzen de geratzeko toki jakin batean. Itsu-itsuko hitzorduak dira, eta oso arriskutsuak. Agian uste izango duzu hor daudenak zu bezalakoak direla, zure adinekoak, zure zaletasun berberak dituztenak... eta baliteke ez izatea horrela. Ez dakizu zein asmo duten. Litekeena da batzuk zuk uste baino zaharragoak izatea, eta asmo txarrekoak. Galdetegietan antzematen denez, zuetako %20k jaso duzue halako proposamenen bat. Datuen arabera, pederasten %95ek (pederastak dira adin txikikoei sexu-jazarpena egiten dieten helduak) ezagutu ditu bere biktimak txat-gelaren batean.

Errealitateak ere engaina gaitzake. Aurpegi asko ditu, eta zenbaitetan, bakarra ikusi ohi dugu. Jolas txiki bat proposatuko dizugu. Ikus ezazu emakume honen irudia. Zapi bat dauka buruan eta luma bat ilean. Kalkula ezazu ea zenbat urte daukan, eta eztabaida ezazu ikaskideekin.



Ikusi duzunez, askotan ez dago ados jartzerik “ustez” ondo ikusi dugun gauza baten inguruan.

Agian jakingo duzu zertan datzan Narciso Greziako mitoa. Ovidio idazle klasikoaren bertsioak dienez, Narciso, egun batean, egarrituta zegoen, eta erreka batera joan zen ura edateko; eta liluratuta geratu zen bere irudiaren islaren edertasunarekin. Edatera ere z zen ausartu, irudia hondatuko zuelakoan. Ezin zionez begiratzeari utzi, hura begiratzen hil zen. Narciso izeneko lorea hantxe hazi zen, bera hil zen tokian (gehiago jakin nahi baduzu, badaukazu informazioa Interneten).

Begia ezazu Dali margolari kataluniarraren koadro hau. Aipatutako mito hori irudikatzen du, eta esandako tokian, errekastoan, azaltzen da. Ordenagailuez ari garela, zer izan liteke Narciso begiratzen ari den ur garden horren hondoa?



"Narcisoren metamorfosia" (Salvador Dalí, 1937)

Zein ondorio atera duzu bi jarduera horietan, ikasten ari zaren gai hau dela eta?:

Emakumearen irudia:

.....

.....

Narcisoren mitoa:

.....

.....

GOGORATU

SAREAREN BIDEZ EZAGUTU DUZUN NORBAITEKIN GERATU NAHI BADUZU, ESAIOZU HURBILEKO HELDUREN BATI.

ARAZOA 3. INTERNETEN EDO SAKELAKO TELEFONOAREN BIDEZKO JAZARPENA (“CIBERBULLYING”)

Interneten, benetako bizitzan bezala, bada jendea fidatzeko modukoa eta bada etengabe kalte egin nahi duenik ere. Imagina ezazu, adibidez, ordenagailuaren edo sakelako telefonoaren bidez Internet erabil dezaketela, era ANONIMOAN, besteak umiliatzeko, erasotzeko, iraintzeko, mehatxu egiteko edo gutxiesteko. Imaginatu anonimotasun hori izan daitekeela mozorrorik onena mezu desatseginak (bortitzak edo sexu-edukizkoak) ezkutuan bidaltzeko, eta besteak gaizki sentiarazteko istorioak asmatzeko.

Askotan erabiltzen dituzte beren “biktirmek” Interneten (web orrian edo blogean) zintzilikatuta dauzkaten argazkiak, edo, bestela, birus baten bidez, ordenagailuan sartzen dira argazkiak lapurtu, manipulatu eta Interneten erakusteko, “biktima” hori barregarri eta umiliatuta utzita.

Gehienetan, honakoak erabiltzen dituzte:

- Posta elektronikoa, txat batean sartzen dira edo sakelakoaren bidez mezuak bidaltzen dituzte.
- Sareko jokoetan hartzen dute parte, eta informazio pertsonala edo zenbait ataza eskatzen dizute. Eta, hori guztiori, jokoan “mailaz igo” ahal izateko.

Norbaitek informazio desatsegina bidaltzen badizu txat batean, hobe duzu posta-zerrendatik ezabatzea. Berak ez du jakingo nork egin duen. Ez erantzun sekula ere haren mezuei eta ez itzuli deirik. Onena da ezezagunei ez ematea posta helbidea, ez eta telefono zenbakia ere. Gogora ezazu datu horiek eman badituzu, behin grabatuta, edonoren eskura egon daitezkeela, eta jende askok eduki dezakeela horiek baliatzeko aukera.

Egin ditugun galdetegietan, irainak eta pornografia dira zuen ordenagailuan edo sakelakoan gehien jaso dituzuen nahi gabeko edukiak (hamarretik bitan).




JARDUERA. EDURNE ZURIREN ISPILUA

Testuinguru honetan, proposatu behar dizugu ziberipuin bat idazteko “Edurne Zuri eta zazpi ipotxak” ipuin klasikoan oinarrituta; erabil itzazu ipuinean agertzen diren pertsonaiak, baina gai honetara egokituta. Horretarako, zenbait argibide emango dizugu, ikus dezazun zer antzekotasun dauden:

- erregina gaiztoa = jazarlea
- ispilua = ordenagailuaren pantaila
- Edurne Zuriri egindako jazarpena = ezagunen baten jazarpena
- Erreginaren morroia = jazarpena egitera bidali dutena
- Ipotxak = adiskide-taldea
- Ipotxen etxea = Babestokia
- Printzea = laguntzen duena
- Muxua = irtenbidea ???

Emaiozu nahi duzun bukaera, baina ez ezazu ahatz ipuinaren unerren batean sartu beharko duzula honako esaldi hau edo antzekoren bat: “Ispilutxo, ispilutxo, zein da erresuma honetako emakumerik ederrena?”.

Eta, nahi izanez gero, bideoz ere graba dezakezu lagunekin batera, bai eta ikaskideen aurrean aurkeztu ere (aurrez, ziurtatu ezazu denak daudela ados).



CIBERBULLYING-EKO KASU ERREAL BAT

Jazarpen mota honi buruzko informazioa osa dezazun, benetan gertatutako kasu bat azalduko dizugu. Irakur ezazu arreta handiz berria, eta ez ahaztu guk emandako aholkuak, hau da, gurasoei edo irakasleei horren berri ematea edo Adin Txikikoen Defendatzailearen Bulegoan edo polizian salatu zure ingurukoren batek halakorik jasaten badu.

Iritsi da e-bullinga: xantaia gelakideei sarearen bitartez

“Poliziak bi ikasle atxilotu ditu Crevillenten (Alacant), ikaskideei xantaia egiteko oso modu bitxia zutelako. Bi adin txikikoek troiar bat (birus informatikoa) sortu zuten, eta horren bidez ikaskideen etxeko kamera aktibatzen zuten, eta grabatu egiten zituzten, haiek jakin gabe, hainbat egoeratan (adibidez, arropa eranzten gelan). Hori egin ondoren, mehatxu egiten zieten, esaten baitzieten irudi horiek zabalduko zituztela ikastetxean ez bazieten ordaintzen dirua (100-200 euro).

Txartelak faltsutzea

Bi adin txikiko horiek informatika-ezagutza handia zuten, eta Madrilen atxilotutako beste gazte zaharrago batzuei lagundu zieten kreditu-txartelak faltsutzen eta Internet bidez legez kanpoko erosketak egiten. 60.000 euroko iruzurra egin zuten”.

Iturria: www.20minutos.es 03/08/08.

ARAZOA 4. INTERNETEN BIDEZKO IRUZURRAK

Harrituta geratuko zara datu honekin: Espainian, azken urtean, %80 areagotu dira Interneten bidezko erosketak. Datu hori ondo dakite lapur informatikoei, “hackerrek”. Horregatik gomendatzen dizugu ondorengo segurtasun neurriak betetzea.

URLa edo nabigatzailearen helbidea hasi behar da **https** letrekin: “s”ak esan nahi du segurua dela. Adibidea:

[https://: www.tumejorbanco.com](https://www.tumejorbanco.com)

Garrantzitsua da, beste alde batetik, esploratzailearen egoera-barran (behealdean) giltzarrapoaren ikonoa azaltzea.

Jakin nahi baduzu zauden web tokia segurua ote den, egiazta ezazu badela giltzarrapo hori bat, itxita dagoena. Horrek esan nahi du web orri horrek babestuko duela ematen diozun informazio guztia. Egin klik bikoitza giltzarrapoaren gainean; azaltzen zaizun izena ez badator bat zauden tokiaren izenarekin, esan nahi du web faltsu bat dela.



Ahal duzun neurrian, leku seguru batean konektatu behar zara, adibidez, etxean. Leku publikoak, alegia, ziberkafeak, mintzategiak eta liburutegiak toki egokiak dira asmo txarreko jendeak erregistratu dezan teklatuan idatzi duzun guztia eta zure datuez jabetzeko.

PHISHING, MEHATXURIK HANDIENA



Ingelesezt baldin badakizu, jakingo duzu, “phising” hitza ahoskatzean, zer esan nahi duen. Aurreko irudiei begiratuta, saia zaitez azaltzen zertan datzan.

.....

.....

.....

.....

.....

Sakon dezagun, baina, gai honetan.

Phishing-a teknika bat da, erabiltzen dena nortasuna ordeztzeko eta nortasun elektronikoa lapurtzeko; horrekin lortzen da, legezt kanpo lortu ere, zenbait eremu edo zerbitzu atzitzea.

Egundoko iruzurra!

ZER DA IDENTITATE ELEKTRONIKOA?

Interneten, gure segurtasuna babestearren, denok dugu **erabiltzaile izena** eta **pasahitza**, toki pribatuetara sartzeko baimena ematen diguna. Toki horiek dira, adibidez, posta elektronikoa, Banketxea Interneten bidez eta beste zenbait toki. Ziurrenik, ikusiko zenituen gurasoak, inoiz edo behin, bankuko kontua atzitzen, edo errenta aitortpena egiten edo kontsultatzen

Batzuetan zuk zeuk asmatzen duzu zure identitate elektronikoa, eta, beste batzuetan, eginda ematen dizute (bankuek edo beste edozein erakundek), baina ez da komeni berehala aldatzea. Aldatzeari “pertsonalizatzea” esan ohi zaio.

Egin dezagun leterekin buru-ariketa bat. Honakoa da zure adineko baten identitatea. Egin ezazu detektibearena eta asma ezazu zein den benetako izena eta pasahitza. Idatz itzazu eskuin aldean:

Erabiltzaile izena: Mrt lpz frndz

Erabiltzaile izena:

Ezkutuko pasahitza: ## ## ####

Pasahitza:

(Erantzuna eskuliburuaren bukaeran aurkituko duzu). Asmatu baduzu, atera itzazu ondorioak.

Orain, pentsa ezazu gaizkile batek zure gurasoek bankuan sartzeko duten identitate elektronikoa eskuratu duela eta haien dirua nahi duela. Nola lapur dezake dirua? Hitz egin ezazu gurasoekin gai hori buruz.

Phisherrek (Phisinga egiten duten gaizkileak) gizarte-ingeniaritzako eta zenbait elementu tekniko batzen dituzte besteen Identitate Elektronikoa eskuratzeko.

Prozedurarik ohikoena izaten da mezu elektroniko faltsuak bidaltzea, biktimak eramateko toki erakargarri faltsuetara. Honakoa izan ohi da prozesua:

1. Era masiboan zabaltzen dute mezu bat (spam), eta mezu horretan adierazten denez, “X kutxa/bankua”ren erabiltzaileen egiaztatu egin behar dituzte beren kontuan sartzeko datuak (identitate elektronikoa).
2. Mezuak badu orrialde batean sartzeko esteka bat, eta orrialde horretatik egiaztatu behar dituzte datu pertsonalak.
3. Erabiltzaileak atzitzen du benetako “X Kutxa/banku”aren antzeko orrialde bat, eta, lasai-lasai, datuak sartzen ditu. Badauka sartzeko giltza!
4. Orria faltsua denez, eta iruzurgileek kontrolatuta dagoenez, horiek dira erabiltzailearen datuak jasotzen dituztenak, eta bidea irekita daukate erabiltzailearen kontua atzitzeko eta nahi duten diru guztia atera edo gastatu dezakete.

Hobeto uler dezazun, hona hemen Interneten aurkitu dugun phisingeko benetako kasu bat.

Behin adibide hau irakurri duzula, osa itzazu ariketan eskatzen dizkizugun datuak, phiserrek darabiltzaten prozedurak hobeto uler ditzazun (zenbakiei jarraitu):



1. “Spam” hau bidali dizute, ustezizena duen bankuaren izenean.
2. Hala ere, mezua bidali duena izan da, eta, beraz, ez duzu loturarik ikusten banku horrekin.
3. Identifika itzazu mezuaren gaia eta ondoren idatzi duen testua, eta azaldu zer esan nahi duen- Zein daturi buruz ari da, “Bancolombia” izanik?
4. Sagua 3. puntuan jarriko balitz, esteka bat edukiko zenuke ustez bankuarena den orrira eramango zintuzkeena, baina iruzurgile baten orria da.

Detektibe ona baldin bazara, jakin zenezake zein helbidetatik bidali duten *spam* mezua: Badauzkagu! Ez ezazu froga hori ezabatu, eta joan heldu batengana, aholkua eman diezazun.

GOGORATU

Halako arazoan aurrean, aurrenik gurasoei edo heldu arduratsu bati esan behar diozu zer gertatzen den; eurek lagunduko dizute. Inoiz estutasunen batean bazaude, pentsa ezazu ez zarela oker jokatu duen bakarra.

3. kapitulua

POSTA ELEKTRONIKOA

Posta elektronikoa, edo, ingelesez, “**e-maila**” (electronic mail), sareko zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahalbidetzen diena mezuak azkar bidali eta jasotzea, komunikazio-sistema elektronikoen bidez. Izena hartu zuten posta zerbitzuaren antzekoa delako, eta tartean “postontziak” baliatzen ditu, zerbitzariak, hain zuzen ere; horietan gordetzen dira mezuak aldi batean, helbidera iritsi eta jaso behar duenak jaso aurretik. Posta helbide pertsonala behar da, bakarra erabiltzaile bakoitzarentzat.

Posta konturen bat sortu behar baduzu, har itzazu kontuan ondorengo iradokizunak:

1. **Helbidea ez dadila oso “ohikoa” izan.** Saia zaitez datu errazak eta zure identitatea erakusten dutenak (izena,

jaiotze urtea) ez jartzen. Egin itzazu letren, zenbakien eta bestelako karakterren konbinazioak, adibidez, pepo2lea4@com.

Asma ezazu orain bat, berriz ere erabiliko ez duzun kontu-izen bat.

.....@.....

2. **“Mozorrotu” ezazu zure posta-helbidea** txat, eztabaida-foro edo bestelako web orriren batean sartzen bazara. Idatz ezazu berriz ere arestian sortu duzun helbidea, eta @-ren ordez idatz ezazu arroba, eta (.) sinboloaren ordez, puntu hitza idatzi.


3. **Kontuz ibili aurretik zehaztuta eta markatuta dauden laukitxoekin.**

Zenbait enpresek laukitxo batzuk sartzen dituzte adierazteko zure baimena dutela zure helbidea beste batzuei saltzeko edo emateko. Ez bazaude ados, adieraz ezazu.

Bestela, konturatu gabe bada ere, baimena emango diezu enpresa horiek parteka dezaten beste batzuekin zure informazio pertsonala.

4. Mezuak bidaltzen badizkiozu pertsona bati baino gehiagori, gogoratu beren helbideak Ezkutuko Kopian sartzen.

Horrela eginez gero, gainerakoek ez dituzte beste helbideak zein diren jakingo eta helbide horiek ez dira sarean ibiliko; arrisku hori ekidingo duzu. Ez baitakigu nora irits daitezkeen! Ezkutuko kopiadun mezuak bidaltzeko prozedura bat izan liteke erakustea CC (kopia) eta CCO (ezkutuko kopia), eta hartzaileak sartzea CCOren barran.



Klika ezazu eta honakoa azalduko zaizu:



Idatz itzazu helbideak CCO barran.

Zure posta helbidea erabili behar duzu, batez ere, ezagutzen dituzunekin edo segurtasuna eskaintzen dizutenekin.

Gogora ezazu zure sakelako telefonoan ere geratzen direla grabatuta hitz egin duzun pertsonen izenak edo mezuren bat bidali diezunenak.

Ikus ezazu, hurrengo datu-orrian, zein datu eskatu ohi duten posta-kontu bat sortzeko:

ONGI ETORRI!

Gurekin posta helbide bat izan nahi baduzu, honako galdera hauei baino ez diezu erantzun behar, zure erabiltzaile izena eta pasahitza aukeratu eta kito!

1. Zure datu pertsonalak

1.1 Izena:	Izena	Abizenak	
1.2 Sexua:	- Hautatu -		
1.3 Jaiotze data:	Eguna	Hila	Urtea
1.4 Jaioterria:	Herri		
1.5 Posta kodea:			



2. Aukera itzazu zure ID (posta helbidearen izen berria) eta pasahitza

.....@.....com

Letrak, zenbakiak, beheko marrak eta puntu bakarra (.) onartzen dira. 8 karaktere.

Adb: pepa4.lea @.....com

Erabili nahi duzun ID ez badago eskuragarri, alda itzazu letrak eta zenbakiak, bakarra izan dadin.

2.1 Pasahitza

2.2 *Errepikatu pasahitza (segurtasuna)

Pasahitza ahazten bazaizu ere, segurtasun galdera bat egingo dugu:

Galdetegiaren bukaera

Ados zaude?

☐ Laukitxoak markatuz gero, adierazi nahi duzu irakurri eta onartu dituzula zerbitzuaren eta pribatutasun-zentroaren baldintzak, eta onartzen duzula jasotzea enpresa honek edo beste batek bidaliko dizkizun jakinarazpen elektronikoak.

4. kapitulua

GURE ESKUBIDEAK

4.1 HERRITARRAK GARA: DATU PERTSONALEN BABESA

Pentsa ezazu Espainian bizi zaren herritarra izanik, eta Espainiako Konstituzioak babestuta (18. artikulua), hainbat eskubide duzula, hala nola, ohore-eskubidea, intimitate pertsonala eta familiarra izateko eskubidea, norberaren irudia babesteko irudia, bai eta datu pertsonalak babesteko eskubidea ere.

Eskubide horiek ezagutarazten gaituzte norbanako gisa: izen osoa, etxeko helbidea, norberaren argazkiak edo familiarenak, edozein tresnatan grabatutako ahotsa, eskuko hatz-aztarnak... gureak dira jaiotzen garen ezker.

Datu horiek erakunde bati (eskola, bankua, kluba, udala...) ematen badizkiozu edo norbaitek eskuratzen baditu, eskuzko fitxategi batean edo fitxategi informatiko batean gorde ohi dira, eta bada fitxategi horien ARDURADUN bat. Berak esan behar du zein den fitxategiaren helburua, edukia eta erabilera; isilpean eduki behar ditu datu horiek eta toki seguruan gorde behar ditu.


Arduradun horren aurrean gure eskubidea erabil dezakegu, doan. 14 urtetik beherakoei dagokienez, gurasoek egin beharko dute. Zure eskola edo institutuan Zuzendaria edo Idazkaria izan ohi dira arduradunak.

Autonomia estatutuek ere babestu eta indartzen dituzte eskubide horiek.

Hauek dira zure eskubideak:

1. Nire datuak atzitzeko eskubidea

Beste inork artxibatuta edo jasota dituen zure datu pertsonalak, horien jatorria eta datu horiekin egin diren edo egingo diren komunikazio edo lagapenak ezagutzeko aukera da. Jakin nahi izanez gero, fitxategiaren arduradunarengana jo beharko duzu, eta hilabeteko epea du erantzuteko.



2. Zuzentzeko eskubidea. Deuseztatzeko eskubidea

Zure ustez fitxategi horretan datuak okerrak, osagabeak edo desegokiak badira, ez direlako beharrezkoak nahi den helbururako, arduradunari jakinaraziko diozu, honakoa egin dezan:

- Datuak zuzendu.
- Datuak deuseztatu, blokeatu, inork ere ez ditzan erabili edo tratatu edoi behin betiko ezaba ditzan.

Eskaerak zuzenduko dizkiozu baita fitxategiaren arduradunari ere, eta 10 eguneko epea du zure eskaerari erantzuteko.

3. Aurka egiteko eskubidea

Bestalde, eska dezakezu zure datu pertsonal batzuk ez tratatzeko. Adibidez, etxeko telefonoaren zenbakia ez agertzeko zure herriko telefono-gidan.


Ez hauek ahaztu:

- Zeu zara zure datuen jabe, eta ez zaude behartuta inori ematera, legeren batek behartuta izan ezik.
- Beti duzu eskubidea datu horiek uneoro kontrolatzeko eta jakiteko zer ari diren egiten datuokin.
- Zure datuak eman ditzakezu eta horien erabilera baimendu 14 urtetik gorakoa bazara. Txikiagoa izanez gero, gurasoen esku dago eskubide hori.
- Inork ezin zaitu, inola ere, behartu ematera zure ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko daturik, eta ezin dira horiek erabili ez baduzu berariaz ematen idatzizko baimenik. Zure osasunari, arrazari edo sexu-bizitzari buruzko datuak bildu ahal izango dira soil-soilik lege batek, interes orokorra dela-eta, hala agintzen badu.



- Ez fidatu datuak osatzeko aitzakia erabilita zure datuak eskatzen dizkizutenekin. Pentsa ezazu eskuartean dituenak agian Interneten lortu dituela (ikasteko diru-laguntza eman dizutelako, kirol-jardueraren baten parte hartzeko izena eman duzulako, zure gurasoen datuak...).
- Datu pertsonalak eskatzen badizkizute, bitartekoa edozein dela ere, hau da, telefonoz edo Interneten bidez, jakinaraz iezaiezu gurasoei; haiek eta zuk jakin behar duzue nork behar dituen datu horiek, zertarako, non edukiko dituen gordeta, nola egongo diren gordeta eta nork erabiliko dituen.
- Fitxategiaren arduradunak beti eskatu behar du DATUEN JABEAREN BAIMENA datuak lagatzeko beste erakunde edo enpresa bati, eta jakinarazi beharko du fitxategi horrekin zer gertatzen den, zein den edukia, zertarako erabiliko den, datuen jatorria zein den, nola lortu zituen, zure eskubideak, norentzat den informazioa, arduradunaren izena eta helbidea.
- Zure datuak jasotzen diren guztietan argi azaldu beharko dira aipatu dizkizugun eskubideak. Irakur itzazu arretaz gurasoekin. Galdetegi guztien bukaeran azaldu beharko lirateke horrelako esaldiak:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatuko dira (...) fitxategian, eta helburu du (...); fitxategia inskribatuta dago Datuak Babesteko ...Bulegoaren Datu pertsonalen Fitxategien Erregistroan, eta laga ahalko zaizkio (...), Legeak aurreikusitako beste lagapen batzuez gain. Fitxategiaren arduraduna da (izena eta helbidea)”.




Orain ariketa praktiko bat proposatuko dizugu eskubide hauek aplikatze aldera. Interneten aurkitutako kasu bat aztertuko dugu.

Hurrengo urtarrilean telebistako "Aukera bat zure esku" saioaren 5. edizioa hasiko da. Castingera aurkezteko izena emateko orri hau bete eta Interneten bidez bidali behar duzu.

IZENA EMATEKO ORRIA

FGaur egungo argazkia, eta adierazi pisua, altuera eta neurriak (emakumezkoa bazara).



Izen-abizenak:

Jaiotze data:

NA edo pasaporteak:

Egoera zibila:

Sakelako telefonoa:

E-posta:

Gaur egungo lanbidea (adierazi ea ikasten ari zaren, lanean edo langabezian):

Gurasoen izena eta NA:

Arraza:

Dauzkazun gaixotasun edo alergiak:

Erljioa:

Joera sexuala (heterosexuala edo homosexuala):

Prest egongo zinateke...?:

• ilearen kolorea aldatzera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• ilea moztera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• bainujantzian desfilatzera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• erdi biluztera (topless)	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• egunean zehar grabatua izatera, jakin gabe noiz gertatzen den	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• Onartuko zenuke grabatutako eta Globo Tour TVk			
hautatutako irudi horiek telebistan ematea?	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN

Zaletasuna:

.....

.....

.....

.....

Adieraz ezazu ea lehenago aurkeztu zaren telebistako beste saioen batera, eta zein katetan:

.....

.....

.....

.....

Aukeratzeko probak bukatutakoan, gure web orrian argitaratuko dira GLOBO TOUR RTV S.A. Barcelona enpresak aukeratutakoen izena, NA eta posta helbidea.

Castingean izena emateko orri hori irakurri ondoren, erantzun iezaiezu honako galdera hauei:

1. Prest egongo zinateke casting horretara aurkezteko? Arrazoitu zure erantzuna.

2. Datu horiek eskatuta, zein helburu du enpresa horrek?

3. Zein datu uste duzu ez dela beharrezkoa helburu horretarako? Zerrenda itzazu eta arrazoitu erantzuna.

4. Zure datuak emanaz gero, zein uste duzu bereziki babestu beharko luketela?

5. Dagoeneko badakizu zure datuak gorde daitezkeela bai eskuz eta bai fitxategi informatiko batean ere. Zein segurtasun-maila eduki behar du enpresak datu horiek gordetzeko?

6. Bada Datu Pertsonalak Babesteko Lege bat. Urratuz gero, nor izango litzateke arduraduna?

7. Imajina ezazu handik hilabetera programarekin zerikusia duen norbait azaltzen dela lehiakidearen etxean musika ekipoak eta karaokeak saltzeko. GLOBO TOUR RTV S.A. enpresaren jabeak datuak beste helburu batzuetarako erabili nahi izanez gero, zer eskatu behar zion lehiakideari egokien iruditzen zaion moduan erabili ahal izateko?

8. Imajina ezazu enpresa ekoizlea salatu nahi duzula eskura dituen datuak desegoki erabili dituelako.

Bete ezazu, guraso edo irakaslearekin batera, ondoren eskaintzen dizugun salaketa ereduak:

SALAKETA DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN AURREAN

Datu Pertsonalen Babesa

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean egindako salaketa

Abizenak
Izena NAN
Kalea Zk. Pisua
Herria Lur. Histor. Posta Kod.
Tel. Posta elektronikoa

Legezko ordezkariaren datuak (adin txikikoen edo ezinduen kasuan)

Abizenak
Izena NAN
Fitxategiaren ustezko arduradunaren datuak
Organo Arduradunaren izena
Kalea Zk. Pisua
Herria Lur. Histor. Posta Kod.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari honako gertakariak jakinarazten dizkiot:

.....
.....
.....

Erantsi den dokumentazioa:

.....
.....

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren esku-hartzea eskatzen dut, datuen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, eta aipatutako araudian ezarritakoaren aurkakoa den egoera hori eragoztearren, egoki deritzon egiaztapenak egin ondoren, prozedura zehatzaileari ekiteko erabakia har dezan.

Tokia eta eguna

Eskaeragilearen sinadura

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARI JAUNA
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3º - 01008 Vitoria – Gasteiz

Salaketa jartzeko tokia: www.avpd.es

Sortuta dauden Datuak Babesteko gaienerako bulegoetan ere jar daitezke salaketak. Honako web orrietan daude:

- Katalunia: "Agencia Catalana de Protecció de Dades" www.apd.cat
- Espainia: "Agencia Española de Protección de Datos" www.agpd.es
- Madril: "Agencia de Protección de Datos de Madrid" www.apdcm.es

4.2 PERTSONAK GARA

Haurren Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenak ezartzen duenez, haur GUZTIEK dituzte eskubideak, guztiek errespetatu eta sustatu behar dituztenak.

Hona hemen eskubide horietako batzuk:

- Eskubidea edozein tratu txarren aurka babesteko (19. art.).
- Beren garapenerako (fisikoa, mentala, espirituala eta gizarte arlokoa) bizi-maila egokia izateko eskubidea. (27. art.).
- Aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea (31 art.).
- Bere ongizaterako kaltegarriak diren beste esplotazio-mota guztietatik babestua izateko eskubidea (36. art.).



5. kapitulua

GURASO EDO TUTOREENTZAKO AHOLKUAK

Internet toki ezin hobea izan daiteke haurrek ikas dezaten, jolas daitezen, eskolako lagunekin hitz egin dezaten edo, besterik gabe, lasaitu daitezen eta esploratu dezaten. Baina benetako munduan bezala, Webaren ere arriskutsua izan daiteke. Zu aurrean egon gabe haurra konektatu aurretik, jar itzazu arau batzuk denok onartuko dituztenak.

Gure azterlanean antzeman dugunez, badira zenbait datu kezagarri, esaterako, adin honetako gazteek zein erraz ematen dituzten beren datuak. Gazte horietako %35ek batere arazorik gabe ematen dituzte datuak klub birtual batean sartzeko edo casting bat egiteko; are gehiago dira posta helbidea edo sakelakoaren zenbakia ematen dutenak. Eta adinean gora, handitu egiten dira ehunekoak.

Ez badakizu nondik hasi, ondoren eskaintzen dizkizugu zenbait ideia hazteekin hitz egiteko, eta erakusteko nola erabil dezaketen Internet modu seguruan.

IDEIA OROKORRAK

1. Saia zaitez egunean egoten Interneten eta sakelako telefonoen kontuetan. Teknologia horiei buruz zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta gehiago lagundu ahalko diezu ondo erabil ditzaten.
2. Hitz egin sarri Interneten egiten dutenari buruz, norekin hitz egiten duten edo zein web orritan ibiltzen diren sarrien. Ezar itzazue denon artean teknologia erabiltzeko eta kontsumitzeko oinarritzko arauak. Goza ezazu Internetez seme-alabekin batera.
3. Komeni da ordenagailua etxean denok erabiltzen dugun toki batean egotea. Ez da komeni euren logelan edukitzea, batere kontrolik gabe.
4. Kontrolatu zenbat denbora pasatzen duten seme-alabek Interneten edo sakelako telefonoan. Ezarri ordutegiak, bat etor daitezen ikasteko ordutegiekin.
5. Esaiezu ez dutela itsu-itsuko hitzordurik adostu behar Interneten edo sakelakoaren bidez ezagutu dituztenekin. Azaldu iezaiezu agian ez dutela egia esan, eta balitekeela ez izatea esan dutena.

INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN ERABILERAZ

6. Instalatu itzazu ordenagailuan birus-kontrakoa, suebakia eta zabor mezua iragazteko programak, eta eguneratu itzazu aldiro-aldiro.
7. Presta itzazu ordenagailuan hasierako saio pertsonalizatu bana seme-alabentzat.
8. Konfigura ezazu zure kontua administratzaile gisa, kontrolatzeko erabiltzaile guztiek zer egin dezaketen eta zer ezin dezaketen egin.
9. Zure seme-alabek mezuak bidaltzen badituzte edo txat-geletara sartzen badira, bideojokoetan aritzen badira on line edo hasierako erabiltzaile izena eskatzen duen beste edozein jardura egiten badute, lagun iezaiezu izen hori aukeratzeko eta egiazta ezazu pasahitz seguruak darabiltzatela, ez dituztela inorekin partekatzen eta ez dutela bestelako informazio pertsonalik ematen.

Merkatuan hainbat programa dago segurtasuna bermatzeko eta edukiak iragazteko aukera gehiago eskaintzen dituztenak.

10. Begira ezazu arretaz ea zein joko jaisten duten edo lagunekin trukutzen duten. Ziurtatu egokia dela bere adinerako eta ez duela bortizkeriarik.
11. Lagundu seme-alabei programak, musika edo fitxategiak jaitsi behar badituzte, nahiz eta legezkoak izan. Erakutsiezu ez dutela urratu behar egile-eskubideen legea fitxategiak partekatzeko edo web batetik testuak, irudiak edo marrazkiak hartzean ere.

DATU PERTSONALEN BABESAZ

12. Azal iezaiezu seme-alabei zein garrantzitsua den datu pertsonalak babestea. Eskuliburu honetan jaso ditugun herritar gisa Datu Pertsonalen Babesaren legediaren aldetik babesten gaituzten eskubideak, bai Estatuan eta bai autonomia erkidegoan ere.
13. Erakutsiezu seme-alaba nerabeei ez dutela zure baimenik gabe informazio pertsonalik eman behar posta elektronikoa, txat-gelak, berehalako mezularitza erabiltzen dituztenean edo erregistratzeko edo norberaren profilari buruzko galdetegiak betetzen dituztenean edo lehiaketa on lineren batean parte hartzen dutenean.

6. kapitulua

IKASLEENTZAKO AHOLKUAK

IKTen ERABILERAZ

Sarean arazorik gabe nabigatzeko, honakoak beharko zenituzke:

1. Informazio pertsonalik eskaintzen ez duen ezkutuko pasahitza. Mezularitza zerbitzuak edo txat pribatuetan sartzen bazara, egin ezazu zeure lagunekin bakarrik. Ez ezazu inoiz ere ezezagunekin hitz egin!
2. Ikasi erabiltzen eta eguneratuta edukitzen birus-kontrakoa eta gainerako blokeatzaileak. Horrela ez zaizu sartuko gordeta daukazu informazioa atzitu dezakeen espiorik.
3. Ez ireki ezezagunen fitxategiak edo mezuak, eta ez ezazu jaitsi ezagutzen ez duzun programarik.
4. Blog bat irekitzen baduzu edo o beste gune pertsonalen bat badaukazu sarean, gonbidatu lagunei bakarrik. Horrela egin ezean edozein eskutan egon daitezke zure datuak!
5. Ez eman inoiz ere zure datu pertsonalak ezezagunei: izen-abizenak, helbidea, Messenger erabiltzailea, sakelakoaren zenbakia...



Gogora ezazu erabili behar dituzula ordenagailua eta sakelako telefonoa gurasoen, tutoreen edo irakasleen aholkuei jarraiki. Zalantzarik izanez gero, haiei galdetu.

ZURE DATU PERTSONALEN BABESAZ

Imajina ezazu zure eskolan enpresa bat ari dela hautatzen gelako marrazkilaririk onenak, ipuin-liburu bat ilustratzeko. Marrazki originalenak saria jasoko dute: musika-erreproduzitaile atera berria. Marrazkiekin batera zure datu pertsonalei buruzko galdetegi bat betetzeko eskatu dizute. Gogora ezazu enpresak honakoak egin behar dituela:

6. Jakinarazi behar dizu datu horiek zertarako erabiliko diren, eta zein eskubide duzun: datuak atzitzeko, aldatzeko (ez badira zuzenak edo gehiegizkoak badira), deuseztatzeko eta aurka egiteko.
7. Baimena eskatu behar dizu datuok erabiltzeko edo tratatzeko. 14 urtetik beherakoa bazara, gurasoek eman beharko dute baimena.
8. Lortu nahi den helbururako beharrezko diren datuak baino ez dizkizu eskatu behar (adb.: kirol-talde batean sartzeko bada, ez dizu zure musika zaletasunari buruz galdetu beharko, ezta?).
9. Toki seguruan eta isilpean egongo direla ziurtatu behar du.

Gogora ezazu badirela erakundeak, hala nola Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa edo autonomia erkidegoetako bulegoak (Madril, Katalunia eta Euskadi), doan lagunduko dizutenak gain honen inguruan ez dakizkizun kontuetan.

4 Arazoaren ebazpena

Erabiltzaile izena: marta lopez fernandez

Pasahitza: aa oe eae

CLI PROMETEO 2008-09 PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEEN ZERRENDA

ANDALUZIA

I.E.S. Aurantia	Almería
I.E.S. La Janda	Cádiz
I.E.S. Cárbula	Córdoba
I.E.S. Villanueva del Mar	Granada
I.E.S. Delgado Hernández	Huelva
I.E.S. Iulia Salaria	Jaén
I.E.S. Martín Rivero	Málaga
I.E.S. Néstor Almendros	Sevilla

KATALUNIA

C.E.I.P. Jacint Verdaguer	Barcelona
C.E.I.P. Pere Vila	Barcelona
Col·legi Lestonnac	Barcelona
Escola Thau	Barcelona
I.E.S. Salvador Espriu	Barcelona

EUSKADI

C.E.P. Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia LHI	Araba
C.E.P. Lateorro LHI	Araba
C.E.P. Atxondo LHI	Bizkaia
C.E.P. Barrutia LHI	Bizkaia
C.E.P. Derio LHI	Bizkaia
C.E.P. Maestro Zubeldia LHI	Bizkaia
C.E.P. San Gabriel LHI	Bizkaia
C.E.P. Urretxindorra LHI	Bizkaia
C.E.P. Velázquez-M.Cervantes LHI	Bizkaia
C.E.P. Zaldupe LHI	Bizkaia
I.E.S. Ategorri BHI	Bizkaia
I.E.S. Balmaseda BHI	Bizkaia
I.E.S. Barrutialde BHI	Bizkaia
I.E.S. Bengoetxe BHI	Bizkaia
I.E.S. Derio BHI	Bizkaia
C.E.P. Aitor Ikastola LHI	Gipuzkoa
C.E.P. Harri Berri Oleta LHI	Gipuzkoa
I.E.S. Egape Ikastola BHI	Gipuzkoa
I.E.S. Lezo BHI	Gipuzkoa

EXTREMADURA

C.E.I.P. Ntra. Sra. de La Caridad	Badajoz
Colegio Claret	Badajoz
I.E.S. Sáez de Buruaga	Badajoz
I.E.S. Tamujal	Badajoz
I.E.S.O. Vía Dalmacia	Cáceres

MADRID

Colegio Sagrado Corazón	Madrid
I.E.S. Cervantes	Madrid
I.E.S. Isabel La Católica	Madrid
I.E.S. José de Churriguera	Madrid
I.E.S. Prado de Santo Domingo	Madrid



Comisión
de Libertades
e Informática

C/ José Ortega y Gasset 77, 2ºA - 28006 Madrid
Tels. 914 023 204 • 915 237 566 • Fax 915 238 621
secretaria@asociacioncli.es • www.asociacioncli.es